



**BI FITXATEGI ELEKTRONIKOAREN INGURUKO ESKAINTZA TEKNIKOEN IREKIERA  
ETA KONPROBAKETA.**

**2008KO ABENDUAREN 23KO 87/2008 FORU DEKRETUAK ARAUTZEN DUEN ETXEAN  
PROGRAMAKO LAGUNTZA PRODUKTU BERRESKURAGARRIEN HORNIDURAREN  
ESPARRU AKORDIOA**

Espediente zenbakia: FA 190/2019

DATA	2019/5/08	ORDUA	12:00	12:45	LEKUA	Donostiako Txara 2 Gizarte Politikako eraikina. 5.4
------	-----------	-------	-------	-------	-------	--

**BERTARATUTAKOAK:**

<b>Ander Zapiain Usandizaga</b>	Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako zerbitziburua, mahaiko Lehendakari gisa.
<b>Jon Iribar Goenaga</b>	Plangintzako, Ituneko eta Prestazio Ekonomikoetako zerbitziburua, mahaiko bokal gisa
<b>Arantza Etxeberria Labayen</b>	Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontuhartzaitza eta Auditoretzako ataleko Administrazio Orokorreko Teknikaria, mahaiko bokal gisa.
<b>M<sup>a</sup>. Socorro Equiza Equiza</b>	Gizarte Politikako Departamentuko Idazkari Teknikoa, mahaiko bokal gisa.
<b>Agustin Aduriz Tellaetxe</b>	Gizarte Politikako Departamentuko Idazkari Teknikoko Administrazio Orokorreko Teknikaria, mahaiaari laguntza lanetan.
<b>Patxi Marroquin Urrestarazu</b>	Gizarte Politikako Departamentuko Idazkari Teknikoko Administrazio Orokorreko Teknikaria, mahaiko idazkari gisa.

Inbertsioetako eta Gizarte Ekimeneko zerbitziburua den Aitor Rodríguez-Anabitarte Aizpeolea jaunak bere ez bertaratze zuritu du.

**GAI ZERRENDA**

Ortopedia Sumisan SL enpresari egindako errekerimenduaren ondorioz jasotako EKAB dokumentua kalifikatzea.



- 2008ko abenduaren 23ko 87/2008 Foru Dekretuak arautzen duen etxean programako laguntza produktu berreskuragarrien horniduraren esparru akordioa emate aldera aurkeztutako eskaintza teknikoan (2 artxiboa) irakurri eta kalifikatzea.

#### **AZTERTUTAKO GAIK:**

##### **Lehenengo:**

Ortopedia Sumisan SL enpresak egindako errekerimenduari erantzun dio eta EKAB dokumentua behar bezala bete du.

Dokumentua aho batez onartu egin du kontratazio mahaiak eta, beraz, hautagaitza lizitazioan onartu egin da.

Hortaz, honakoa da lizitatuak eta sorten hautaketa:

<b>LIZITATZAILEAK</b>	<b>Kontratisten erregistroa</b>	<b>1 sorta: Altzariak eta higienerako elementuak.</b>	<b>2 sorta: Lekualdaketak egiteko tresnak.</b>	<b>3 sorta: Eskailera igogailuak eta garabiak.</b>
El Corte Inglés, SA. (IFK A28017895)	00067	X	---	---
Nacil Medica 4 Group SL. (IFK B48434096)	ENI13410	X	X	X
Gendia Soluciones para la discapacidad SL. (IFK B75080804)	ENI10101	X	X	X
Muebles Arun, SL. (IFK B20610713)	02819	X	---	X
Ortobea, SA (IFK A20138012)	ENI9999	---	---	X
Ortopedia Sumisan SL (IFK B20459277).	ENI10088	X	X	X

##### **Bigarrenengo:**

Behin fitxategiak irekita, jakinarazten da aurkeztutako eskaintzek baldintza administratiboan agiriko 19. eskatutako gutxieneko edukia betetzen dutela: Ezaugarri teknikoak eta elementu osagarriak zein ordezkioak sartzea, saldu osteko zerbitzua eta produktuen ingurumen alderdiak eta Hizkuntza baldintzen hobekuntzak.



Aitzitik, eskaintzaren aurkibidea ikusita zein eskaintzari begirada orokorra eginda, ez dirudi Ortobea, SA enpresak "Hizkuntza baldintzen hobekuntza: euskara" atala jorratu duenik. Beraz, hala bada, ez luke punturik lortuko atal horretan. Kasu berean dago Nacil Medica 4 Group SLren eskaintza (ez baitu "Hizkuntza baldintzen hobekuntza: euskara" ez eta "Saldu osteko hobekuntza" ere aipatu).

El Corte Inglés, SAren kasuan, ez ditudi eskaintza egiten duen Francisco Javier Del Rio Fernández de Eribe jaunak erabili duen sinadura elektronikoa entitatearen ordezkariari atxikituta dagoenik, ez baita enpresaren aipamenik azaltzen sinaduren metadatueta. El Corte Inglés, SA esleipendun suertatuz gero, ordezkariatza argitzea eskatuko zaio.

**Hirugarrengo.-** Fitxategietan aurkeztutako aurkibidea eta eduki orokorra konprobatua, aho batez onartu dira –aipatu ñabardurekin- El Corte Inglés, SA., Nacil Medica 4 Group SL. Gendia Soluciones para la discapacidad SL., Muebles Arun, SL. Ortobea, SA eta Ortopedia Sumisan SL enpresek aurketutako BI fitxategiko dokumentuak.

Amaitzeko, jasotako dokumentazioa Etxean laguntzeko atalaren esku jarri da, balio-judizioaren bidezko balorazioak egin ditzan.

Sinatua:

**Ander Zapiain Usandizaga**  
Lehendakaria

**Patxi Marroquin Urrestarazu**  
Idazkaria



*[Faint, illegible text, possibly bleed-through from the reverse side of the page.]*

*[Faint, illegible text, possibly bleed-through from the reverse side of the page.]*

*[Handwritten signature or scribble in the lower center of the page.]*